

Bernardina Zubillaga Leunda

*Antzuola
Gipuzkoa (1919)*

Aurkibidea

Biografia



Kalebarreneko "Asentxionekua" etxean jaio zen. Aita Ormaiztegikoa zuen, errementaria eta ferratzailea; ama, berriz, Ezkiokoa. 6 anai-arreba ziren. 11 urtera arte ibili zen eskolan eta horren ondoren neskame ibili zen Bergaran eta Donostian. Handik etorruta, larrua ontzeko lantegian egin zuen lan ezkondu arte.

Zintak

ANT-072

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-30
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Elortza, Kepa

ANT-073

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-30
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. "Eskola txiki"tik nazionaletara

- **Erref:** ANT-072/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>"Eskola Txikixa"n hasi zen umetan, eta gero eskola nazionaletara pasatu zen. Eskolak beti jaso izan ditu euskaraz, baina gerrara arte libre zuten euren artean euskara erabiltzea eta ondoren ez. Doña Isabel eta doña Blanca izan zituen maistra eskola nazionaletan eta Maria "Eskola Txikixa"n. "Eskola Txikixa"n jolasean ibiltzen ziren gehienbat, benetan ikasten eskola nazionaletan hasi zen.</p>

Transkripzioa

-Eskolara be hemen fan ziñan?
-Eskolara bai hementxe. Hortxe.
-Eskola Txikixa edo hori?
-Bai, Eskola Txikira lelengo umetan eta gero ba haunditxuauak ein giñanian ba bestera, hortxe.
-Hurrengo nazionaletara?
-Bai.
-Eta zuek eskolia euskeraz jasotzen ziñuen ala erderaz?
-Euskeraz eitten giñuan baiña gero prohibidu ein zeбен euskeraz. Gero erderaz. Gerrako denboran.
-Gerra denporan kendu eiñ eben euskeria?
-Bai, bai, bai. Ez oskuen lagatzen euskeraz, dana erderaz.
-Eta gerra aurreko eskolan klasiak euskeraz emuten otsuein ala erderaz?
-Erderaz, erderaz, erderaz.
-Baiña zeuen artian euskeraz ibilttia libre zeukazuen?

-Bai, ibiltzen giñan, eitten giñuan.
 -Akordutzen za ze maixu edo ze maistra edo zer euki zebein?
 -Maistrak? Ba nik euki nittuan ez dakit bi edo hiru edo. Kanbixau...
 -Izenik edo goguan daukotzu?
 -Bai, doña Isabel bat. Eta gero doña Blanca, eta gero bestia ez dakit, ez naiz akordutzen.
 -Eta Eskola Txikiko kontuak? Goguan daukatzu zenbat urtekin fan ziñan?
 -Eskola Txikira ba zazpi urtekin edo holaxe jungo nintzan.
 -Klaro, Puritak esan eben bera bi urtekin edo gutxiaokin fan zala.
 -Bai? Ba ez, nik ez dot uste hain txikittan jun nintzanik. Nik goguan daukat behintzat zela andra batek emuten zoskun eskolia edo. Eskolia edo, jolastera juten giñan, jolastera.
 -Antzuelako emakume bat?
 -Bai, bai, bai.
 -Zela euen izena horrek?
 -Maria.
 -Orduan eskola txiki horretan...
 -Jolas, jolastu eitten giñan. Bai.
 -Eta han irakurri eta holako gauzarik?
 -Ez, ez, ez.
 -Eta gero ya ikasten hasi ziñain?
 -Bestian. Bai, bai.

2. 11 urterekin neskame

- **Erref:** ANT-072/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Galarazita zuten euskaraz mintzatzea, baina ez zituzten zigortzen euskaraz egiteagatik. "Komunio generala" egin eta gero, 11 urterekin neskame joan zen Bergarara, Antzuolako jostun bat ezkondata zegoen etxera.

Transkripzioa

- Eta hor ya euskeraz egin ezkerro kastigua?
 - Hori gerrako denporan, kastigua be ez, baiña ez zebein lagatzen, ahal dala erderaz itten giñuan, geizki edo ondo.
 - Mutillak eukitten euein-edo eraztuna edo beste piezaren bat eukitten euein, euskeraz egitten ebenari emuten otsaiña, eta gero harek beste lagun bat entzuten ba eben euskeraz egitten hari pasaitten otsan eta gero klasia akabaitten zanian, ba eraztunori edo zeori euenak kastigua jasoten eben. Neskakin ez dot uste pasaitten zanik.
 - Guk ez dogu hori ezagutu, nik ez dot hori ezagutu, ez.
 - Zenbat urte arte egon ziñan eskolan?
 - Eskolan ba, hamaika urtekin jun nitzan kriada, ba, hamaika urte.
 - Hamaika urte arte.
 - Komunio jenerala in giñuanian, ala, martxa!
 - Komunio reala?
 - Komunio jenerala esaten gotsan. Bai, "la primera comunión".
 - Jenerala esaten zotsain zuek?

- Bai.
- Hori zer zan, leheningua?
- Ez, lehelengua komunio txikixa, zazpi urtekin, eta gero hamar-hamaika urtekin komunio jenerala, eta haura in ezkerio “ya estaba”.
- Orduen komunio jeneral hori in zebeñian, ya urten zebeñ eskolatik?
- Bai, leister.
- Eta handik fan ziñan...
- Kriada, Bergarara.
- Nora? Baserriren batera, edo?
- Ez, ez, kalera, kalera, kalera.
- Eta hori ziran, euko zittun hamaika bat urte esan dozu?
- Hamaika bai, hamaika-hamabi, hortxe-hortxe.
- Orduen gerria hasi aurretik.
- Bai.
- Ze giro euen Bergaran? Ze in zebeñ, hola aberatsen baten etxian-edo?
- Ez, Antzuolako alabia zan, Eufemia zeukan izena. Baiña zeuan Bergaran ezkontuta, eta harek itten zeban josten, eta harek josten itteko ni eruan ninduan ba etxeko lantxuak in eta errekauek in eta itteko.
- Eta han Bergaran ez ziñan eskolan ibilli?
- Ez, kitto, “ya se acabó”. Nik asko dakit e?

3. Hamar erreal, hileko soldata

- **Erref:** ANT-072/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Sokasaltoka, bule-buleka eta tortoloska jolasten zuten eskola garaian. Hiru bat urte eman zituen Bergaran neskame, etxeko lanak eta mandatuak egiten. Hilean hamar erreal irabazten zituen, baina ama joaten zen kobratzera.

4. Oiloak eta ortua etxe ondoan

- **Erref:** ANT-072/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Oiloak betidanik izan dituzte etxe ondoko txabola batean. Arrautzak Bergaran saltzen zituzten . Ama jostuna zuen. Lehengo etxe ondoko ortua, orain uholdetarako gainezkabideak hartu du. Ortu sail gehiago ere bazituzten. 14 urterekin Donostiara joan zen neskame.

5. Neskametzatik larrugintzara

- **Erref:** ANT-072/007
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

<p>Donostiatik etorri eta lantegian hasi zen lanean. Lehenengo Bareñorenean eta gero Olaranenean, larrugintzan bietan. Lantegi horiek itxi zirenean, etxeak eraiki zituzten lehen lantegiak zeuden lekuan. Gerra Zibila izan aurretik itzuli zen Donostiatik. Mirakontxan markes baten etxean aritu zen etxeko lanak egiten, beste hiru bat urtean. 17 urterekin itzuli zen Antzuolara.</p>

Transkripzioa

- Eta gero handikan fabrikan eskatu, lanak billau gittuan eta hementxe etxian amakin-ta.
- Ze fabrikatan hasi ziñan?
- Olaran; edo Bareiño “primero”, Bareiñonian, Bareiñonen fabrikan, eta gero harek itxi in zeban eta gero Olaranenian, handikan ezkondu nitzan.
- Ze itten zeuein Bareiño horretan?
- “Curtido”. Narrua dana, bai.
- Eta gero Olaran esan dozu?
- Gero Olaranen, han be narrua.
- Onddiok fabrika horreik martxan dagoz-edo?
- Ez, ez, ez, ez. Ya lehen fabrikia zan lekuan oin etxiak dare eginda. Harek Beasaiñera joan ziran, eta gero oin dare etxiak inda.
- Donostian zenbat urte in zittun?
- Donostian ez dakit ba, pare bat urte-edo, ez dakit. Pare bat, hiru bat urte ingo nittuan.
- Orduen ondiok gerra aurretik bueltau ziñan Antzuolara.
- Bai, bai, bai, bai.
- Ze rekuerdo dakotzu Donostiakuak? Han beti be kalera eta fango ziñain ba, egunen bat libre euko zeuein.
- Bai, jaixan gu. Dantzara juten giñan, han be erromerixia itten zan.
- Donostiako ze aldetan egon ziñan?
- Hemen Mirakontxan, “Altos de Miraconcha”.
- Paraje politta. Eta zein zan nagusixori?
- Auskalo! Ez dakit.
- Etxe baten ez zeuen itten lan?
- Bai, etxe baten.
- Nagusixa nungua zan?
- Markesa esaten zeбен ta, markesa. Nagusirik ez neban ezautu.
- Ezautu be ez?
- Ez.
- Eta ze lan klase itten zeбен han?
- Han lana, ba etxeko lanak. Etxeko lanak.
- Eta markes hori ikusi be ez?
- Markesa bai, andria e? Gizonik ez. Andria bai, señoia.
- Hori zan markesaren andria.
- Han orduan jente inportantiakin ibilliko ziñain, ezta?
- Bastante, bastante.

- Zer ziren, euskaldunak edo kanpokuak?
- Ez, ez, kanpokuak, kanpokuak.
- Ze itten euen, bizi Donostian edo beraneau bakarrik?
- Erak bizi Donostian. Nik alde nebanian be han geratu ziran. Oin hilda dare horrek, asko.
- Eta ez dakitzu nunguak ziren eurak?
- Ez, ez.
- Eta han zenbat denpora egongo ziñan, hiru bat urte han be?
- Bai, halakotxen bat ingo neban.
- Hamazazpi urtekin ya neskailla gogorra egindda...
- Gero fabrikara, hara! "A trabajar".

6. Larrugintzatik ezkontzera

- **Erref:** ANT-072/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Lantegian txahal larrua prestatzen zuten zapatak egiteko. Gizonezkoek larrua lehortu eta zurratzen zuten; emakumezkoek tratatu, ebaki eta josi. Bareño anaiak ziren lantegi baten jabeak eta Olarandarrak bestearenak. Azken hauek Beasainen bizi ziren eta euren etxean neskame zegoela egokitu zitzaion Bernardinari ezkontzea.

7. Beasaindik Antzuolara autoz

- **Erref:** ANT-072/009
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Bernardinaren senarra Olaran lantegiko kamioi txoferra zen. 36 urterekin ezkondu zen Bernardina. Beasainen neskame zegoela, nagusiek autoz ekartzen zuten Antzuolara, hain zuzen ere, medikuak, alkateak, idazkariak eta gutxik gehiagok autoa zuten garaian.</p>

8. Plazako dantzaldiak

- **Erref:** ANT-072/010
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Beasainen urte bat lanean egin eta gero ezkondu eta etxeakoandre bihurtu zen. Jaiero izaten zen dantzaldia herriko plazan, udaletxean jartzen zuten gramola soinuarekin. Deskargan ere sarritan izaten ziren dantzaldiak. Umetatik ezagutu du Bernardinak Mairuen Alardea.</p>

Transkripzioa

- Badakotzu rekuerdorik han Beasaiñekorik? Zuk han urte pare bat edo hiru igual ingo zittuan, ezta?
- Ez, hainbesterik ez. Urte pare bat ez. Urtebete ingo neben akaso baiña... urte pare bat ez. Gero ezkondu in nitzan, handitxek ezkondu nitzan ta.
- Eta gero ya lanera fuera.
- Gero ya etxien.
- Zenbait ume hazi (di)ttozu?
- Bat.
- Bat euki dozu?
- Bat. "Para muestra un botón".
- Hemen Antzuolan jaixak eta erromerixak eta goguan dakotzu zela...?
- Bai, erromerixia itten zan hemen jaiero.
- Jaiero, plazan?
- Plazan. Gramolia ipintzen zeban aiuntamientuak, gramolia.
- Gramolia e? Bandarik ez euen?.
- Gramolia ipintzen zeбен eta guk dantza.
- Eta agarrauan eta libre zeukatzuein egittia-edo?
- Ez, pekatua zan, pekatu mortala zan. Konfesatzera jutun giñan harrapatzaka. Preguntatzen zoskun abadiak gehixao? Eta "ez", esaten gotsan gehixao ez giñuala egingo; eta damututa genden? Eta baietz. Baiña hurrengo soiñua entzuten giñuanian zein egoten zan dantza in barik? "Que va, ni pensar". Deskargara be junda gare dantzara. Deskarga badakitzu nun dagon Deskarga? Ba han erromerixia itten zan lehen, itten zan.
- Han be jaiero edo?
- Jaiero edo bai, askotan behintzat. Eta haraxe be junda nago ni erromerixara.
- Hemen ze orduak arte egoten zan gramoliori joten?
- Zortzi tt'erdia, beratzixak.
- Gero etxera.
- Etxera biheko, aitta zain. Eta gustatzen jakun orduan, dantzia akabatzen zanien mutillen batekin edo pasiatzera jutia hor behe aldera eta, "¡por aquí!", aittak "¡venga, a casa!".
- Ha umiak zainketan, klaro. Eta jaixak-eta?
- Oin bezela ez euen lehen jairik. Gero hasi ziren horrek jaixak. Hori zeori esaten dozu, udako...?
- Bueno, herriko jaixak.
- A, jaixak! Bai, ondo.
- Orduan...
- Agostuan izaten zan orduan.
- Agostuan?
- Moruan gerria-eta.
- Aber, kontau zela itten zeuein moruen gerria.
- Nik ez dakit kontatzen hori. Ba morua pintau itten zan, oin be itten da e?
- Bai. Eta zela... teatro modura edo izango zan, ezta?
- Bai.
- Eta zer, moruak kristianuen kontra edo?

- Morua hil itten zebeñ.
- A, moru bat.
- Bai, moru bat.
- Alardia edo zela esaten xatzue horri?
- Bai, Alarde, bai. [...] zebeñ. Tiroak eta dana botatzen zittuein.
- Morua hiltteko?
- Bai.
- Baiña hemen badago istorixan bat Antzuolan moruak geiztokixaren bat egindda edo holakorik?
- Ez.
- Nundik dator jai horren jatorrixa?
- Ez dakit.
- Zuek hori umetatik ezagutu dozue.
- Guk umetatik ezagutu dogu, beti-beti. Eta ondiok ere segitten dau.
- (Alabia): kapitanak be diferentia ezagutu (di)ttozue zuek.
- Bai.
- Zer da kapitana? Moruen kontrako zera?
- (Alabia): bai. Alardian diskursua emuten dabena, kapitana.
- (...)

9. Aita errementari eta ferratzaile

- **Erref:** ANT-072/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Bernardina bere etxera ezkondu zen. Orain dela gutxi kendu diete etxe ondoko ortua. Aita errementaria eta ferratzailea zen. Etxetik gertu zuen lantokia. Bernardinaren anaia batek jarraitu zuen aitaren ferratokian lanean eta berau izan zen Antzuolako azkenengo ferratzailea.

Transkripzioa

- Zu ezkondu ziñanian, ortuakin eta danakin jarraitu zebeñ?
- Bai, hemen? Bai. Puxka baten bai. Ondiok zenbat denpora da ba kendu zoskuela hau? Gutxi.
- Eta zu ze ezkondu ziñan, gizonen etxera edo etxia erosi in zeuein-edo?
- Etxera, etxera, amagana. Goixan bizi zan. Ni behian bizi naiz baiña orduan etxe honek dauzke hiru pisu, eta azkeninguan jarri giñan gu. Ni gizonakin bakarrik jarri nitzan, eta gero etorri giñan amagana.
- Ze lan klase itten euen zure aitta-amak, edo itten beuen behintzet? Aittak ze lan klase eukan?
- Errementarixa zan. "Herrero y herrador".
- Bixak. Errementarixa eta perratzaillia.
- Bai, hori da.
- Eta nun, hemen bertan euki...?
- Bai, hortxe egoten zan, hortxe dago taillerra eukitzen zeuen. Oin ez dago baiña.
- Eta behixak jasotekua eta ondiok horreik hor dagoz?
- Bai, egongo ziran. Auskalo nun daren harek.
- (Alabia): erakutsiko dotsut gaiñera, bere anae bat, tio Inazio, bere anae

bat segi zeban ofizio berdiñakin, eta oin dala hiru urte hil in zan, eta rekordatorixo batzuk dauzkat etarata perratza, perratze tokian.

- Orduen usain ederra euko zeuein etxien, ezta?
- Bai.
- Behixak ez ziren gustora egoten perraitten!
- Ez, ez, ez, ez. Bueno, gu hemen bizi gara plazan, eta hementxe bizi gara aspaldien be; baiña errementereri etxia harutzago zeuken e?
- A, bizi hemen eta taillerra beste leku baten?
- Bai, beste toki baten, bai.
- Perratzaillia orduan aitta.
- Bai.
- (Alabia): bere anaia. Antzuolan bukatu zeban azkena beori zan, gero harrezkerio ez dago, eta fragua hori...
- Perratoki honetan itten eben zure aittak be?
- Bai, hementxe, hementxe, hementxe.

10. Ormaiztegitik etorritako ferratzailea

- **Erref:** ANT-072/013
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Ferratokia bi lekutan izan zuen, "La Fragua"-n (orain tailer bihurtuta) eta "Perra"-n. Aita Antzuolara etorri zen Ormaiztegin ez zegoelako nahikoa lan hango bi ferratzaileentzako.

Transkripzioa

- Zenbat urtietan egon zan perratzaillie?
- Aitta? Ez urte askuan, eztakit.
- Baiña hori zan bere lana.
- Bai horixe zan. "Herrero y herrador".
- Eta zuek umetan faten ziñain hara? Behixak zela jasoten zittuein ikustera eta?
- (Alabia): nik be ezagutu dot.
- A, zuk be bai?
- (Alabia): hori oin dala urte... ondiokan asko be ezta hori; hori egon zan tokixan dago tailler bat. Beorren loiba batek, beste anae baten semiak. Eta tailler hori haunditzeko ya kendu zeban, "La Fragua" esaten otsen horri. Baiña hori, guk idixak eta jasoten zittuenian, txikittan, gu be ikustera jun itten giñan, bai, asko gustatzen jakun. Eta oin hori egon zan tokixan ba dare ofizina batzuk, ez? Baiña bueno...
- Hor soziedadia dau han, lehen perratokixa egon zan lekuan.
- (Alabia): perratokixa ez, baiña perratokixak bi tokitan euki (di)ttozue, ama. Zuk euki dozu bat Perra, Perrako goixan.
- Perra, bai.
- (Alabia): Perrako goixan, baiña gero handikan Aitorren taillerrera eta jun ziñaten.
- Bai, halaxe da.
- (Alabia): bi toki. Zuek etorri ziñaten, zure aitta izan zan perratzaillia baiña zan Goierrixan, eta etorri zan han zera zeukan, konpetentzia zeukan eta etorri zan Antzuolara.

- Hona etorri ziren bizi izatera, Ormaiztegittik.
- Ormaiztegittik Antzuolara etorrirta, perratzaile jarraiketako.
- (Alabia): han zeguan beste bat. Orduan ez eguan birentzako, nik beoni entzunda.
- Ni hemen jaiotakua naiz.
- (Alabia): orduan ez eguen Antzuolan.
- Ganau asko euen garai hartan Antzuolan?
- Orduan ba bastante egongo zan-edo.
- Oingo aldian bai.
- Eta famelixan ezeben iñok urten errementari?
- Errementari? Horretxek, hauxe, hau anaia da neria.
- Zure anaia da hori?
- Hau nere anaia da. Honetxek.
- (Alabia): oin dala bi urte-edo hil da hori.
- Horrek jarraitu otsan orduen aitten ofiziuari?
- Bai, eta honi gustau itten jakon gaiñera.
- (Alabia): horri ikaragarri, animalixak eta asko gustatzen jakon.
- Baiña perratzaile aparte sutegixa be beukein.
- (Alabia): sutegixa be bai. Betik diar in zejau, guretako gaiñera oin tailler moduan dagon hura, guretako guk kolokialmente berba itten dogunien, sutegira noia, sutegixa esaten jau taillerrari; oin tornuak eta dare, ba harrezkereo... Hemen gure etxeko balkoiak eta zerak be danak, erak eginda dauzke, forjan eta... nik ikusita daukat haura...
- Barandauak-eta...
- (Alabia): barandauak-eta... berotu eta ikusitta daukat formak emuten, ikusitta daukat tio nik taillerrian.
- Eta kanpaarik-eta ez euein itten holako gauzarik honeik? Kanpaak-eta.

11. Baserririk baserri ganaduak ferratzen

- **Erref:** ANT-072/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Eliza barruko lan batzuk ere egin zituen errementariak. Azkenengo lan urteetan, ganaduak ferratzera baserrietara joaten zen Bernardinaren anaia. Ganadua altxatzeko tramankulua Jauregi baserrikoek zuten.

Transkripzioa

- (Alabia): kanpaak eta horrek nik eztakit baiña elizako ze batzuk eta uste dot beonek dauzkala eginda ezta? Baten batek esan nostan neri, honek zure tio Inaziok dauzka eginda, lan honeik hor elizatan eta egoten dira ba barandauak eta hola? Altaretan eta hola? Uste dot (...)
- Puritak komentau nostan kanpaan asuntua-eta, bera oso afiziño haundixa dako kanpaakin eta hola, eta aingeru kanpaia, kanpantxua eta eztakit zer eta. Nola ba hau herriko errementari bakarra izango zan ezta?
- (Alabia): bai, eta gero azkenetan nik ezagutu dotenian be, beori bakarrik, bai. Eta gero azkenera, baserrittarrak behixa edo idixa-edo ekarri biharrian, berau eruaten zebeu baserrittara.
- Bai erute zebeu.
- Eta baserrixan lana in?

- (Alabia): baserrixan lana in; badau hemen Antzuolan baserrin bat zera daukana, ganaua altzateko.
- Uste dot zera dala, Jauregi.
- (Alabia): Jauregin dago altzaten dabena be bai. Ondiokan hantxe, etxetik kanpora dauke bat.
- Orduan igual beste baserritar batzuk Jauregira eruango euein ganauak? Kalera ekarri biharrian? Jauregin dakuei orduan zeori.
- (Alabia): oin badauke bat Jauregin, ondiokan hantxe segitzen dau.
- Uste dot segiuko dabela.
- (Alabia): ni paseora juten naiz eta hantxe segitzen dau, eta igual baserri gehixagotan be egongo da, porke gure tio baserri askotara eruatzen zeben. Oin azkenera e? Lehen karo, badakizu, ganauak ekarri itten ziran, dringi-dranga dringi-dranga, baiña eske oin azkenera...
- Bai, eta ganauak perrau bittartian ba pelukerixara fan edo...
- (Alabia): hori! Nik erori entzunda e?

12. Mutilekin dantza egitea bekatu

- **Erref:** ANT-072/015
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:35:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>"Katona" eta lau erregelak ikasi zituen eskolan. Dotrina osoa buruz ikasi behar izaten zuten, bestela suspentsoa jaso eta ezingo zuten "komunio generala" hartu hurrengo urtera arte. Hijas de María kongregaziokoa zen Bernardina. Hilean behin elizan elkartzen ziren ohiko zinta urdina lepoan jarrita. Mutilekin dantza egiten bazuten (bekatu mortala omen zen orduan), zinta urdina kendu eta berdea jartzen zieten.</p>

13. Kongregaziotik egozteko adinako bekatua

- **Erref:** ANT-072/016
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:57. **Bukatu:** 00:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Neskatilek eurek konfesatzen zuten mutilekin dantza egin zutela. Batzuetan, beldurrez, Bergarara joaten ziren konfesatzera, Antzuolako abadeak jakin ez zezan. Dantzaren bekatua errepikatuz gero, kongregaziotik bidali egiten zituzten neskak. Mutilek San Luisen kongregazioa zuten.</p>

Transkripzioa

- Nor faten zan ba gauza horreik esatera? Zuek zeuek ez ziñain fango ezta,

hori esatera?

- Ez baiña, han eruaten giñuan guk.
- (Alabia): baiña zeñek zekixen noiz itten zindduen dantza?
- Nola enteraitten zan abadia mutillakin dantzan ibilli ziñailla? Nork esaten otsan?
- Konfesauta! Konfesatzera juten giñan eta. Hori pekatua zan eta, dantza in giñuala. Ze uste dozu ba zuk? Holaxe. Eta hemen konfesatzia nahi ez igual, hori esateko bildurra eta Bergarara junda gare konfesatzera.
- A, bai, e?
- Bai ba, Bergarakuak ez giñuzten ezagutzen ta. Hemen jun ezkerro, hemen...
- Gero zinttia, gero herri dana enterau. Eta zinttia noiz janzten, noiz...?
- Mezetako denporan, kongregaziñuan.
- Zer ziñain, Antzuolako neskailla danak zeontzein?
- Bai, nik uste dot gehixenak, bai.
- Eta mutillak baeukein holako zera?
- Bai, San Luisena.
- Zelan?
- San Luis.
- Hareik ze kastigu eukitzen zebeñ ez dakit. Baiña neskak...
- Baiña orduan mutillak be ez euen euko libre neskakin dantza egittia, ezta?
- Nik uste dot berdin izango dala baiña ez dakit, mutillen berririk ez dakit.
- Oseake ona baziñan zintta urdiña, eta txarra baziñan zintta berdia.
- Berdia. Dantza itten baziñuan berdia. Eta ya deskuidaitzen baldi baziñan gehixau itten, fuera! "Ya no eres Hijas de Maria".
- "Hijas de Maria"tik bialdu? Eta beste ze gauza itten zeuein "Hijas de Maria" horretan, errezau bakarrik?
- Errezau. Errezau eta elizara jun ta txintxo-txintxo ibili, mutillekin dantzarik in barik.
- Baiña hola, eskursiñorik-edo?
- Baiña gu matrakak giñan eta guk in egitten giñuan.
- Baiña eskursiñorik edo beste holakorik itten zeuein "Hijas de Maria" horretan? Edo bakarrik eliza asuntua zan?
- Ez. Elizakua, elizakua, elizakua, elizakua. Goizeko sei t´erdietan edo seiretan edo hola izaten zan mezia.
- Goizian?
- Goizian goiza, bai.
- Baiña hori zuentzako edo danentzako?
- Danendako, baiña hori egun hori tokatzen zanian, aparte, "Las Hijas de Maria", aparte, aparte egoten giñan elizan.
- Hillian behin, "Hijas de Marias"ok beste banku batzutan-edo.
- Eta deskuiduan sekula konfesaitten esan ez bazeuen itten dantza in zeueilla?
- "Allá cuidaus", guk betik esaten giñuan. Esaten gontsen gehixau ez itteko, ez giñuala egingo baiña in egitten giñuan.
- Zenbat kredo eta zenbat errezau bihar dantza egittiagatik?
- Horixe, auskalo!
- Eta penitentzia ze ifintten otsuein?
- Ba auskalo, beti igual ez euen ipintzen ta. Ez dakit, nik ez dakot oin goguan baiña, pater nosterren batzuk-eta.

14. Arrosarioa familian; lehen irratia

- Erref: ANT-072/017

- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:39:15. **Bukatu:** 00:42:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Errezoak euskaraz eta gazteleraz ikasi zituen. Etxean ez zen egunero arrosarioa erreztatzen, baina Urruti baserrira joaten zenean izebari laguntzera, familia osoa elkartzen zen gauzez baserriko atarian artoa aletzeko, eta arrosarioa erreztatzen zuten. Ura eta argindarra etxean beti ezagutu ditu Bernardinak. Antzuolako lehenbizikoetako irratia euren etxean izan zen, berak 10-11 urte zituenean. Loiola Irratia entzuten zuten.</p>

Transkripzioa

- Zuek dotriñan aittaguria eta horreik ikasi zittuein edo latinez?
- Ez, ez, aittaguria.
- Aittaguria euskeraz?
- Bai, bai, bai, euskeraz eta erderaz.
- Latinez ez?
- Ez.
- Eta errosarixua eta asko errezaitten zan etxian-edo?
- Bai. Etxe askotan bai, gurian ez zan egunero erreztatzen, noizian behin bai. Ez giñan juntau be itten, mutillak, lau mutil geuzkan eta, hortarako izan bihar da ba famelixia juntauta, afalostian ba errosarixua errezaui-ta.
- Baserri gauzia.
- Baserrixan bai. Ni Urrutira eta juten nitzanian...
- Nora?
- Urrutira baserrixa, Urruti. Nere tiuak zeren han eta ni juten nitzan harutz ba tiari laguntzera. Eta han arto zuritzen eta errosarixua erreztatzen akordatzen naiz ni, atarixan danak arto zuritzen gabian udazkenian eta errosarixua erreztatzen zan.
- Eta nork esaten eben errosarixua, amandriak?
- Amandriak.
- Neuk be ezagutu dot hori.
- Bai, ezta?
- (...)
- Zuek hemen etxe honetan, ura eta inddarra eta betik euki izan dozue? Ura fregaderan eta betik?
- Betik. Nik betik ezagutu dot.
- Eta baiñeria eta holakorik? Kumunan zerik?
- Ez, baiñeria ez, baiñeria ba aspaldittik dakogu guk baiñeria eta ezta, baiña ez, gure gazte-gazte denporan ez.
- Bakarrik kumuna?
- Kumuna eta garbittu bat hartzeko barriño haundixa, barriñoiak. Baiña baiñerarik ez.
- Baiña etxe barruan ura bai orduen?
- Bai, bai, bai, ura beti.
- Eta ur zikiña nora faten zan?
- Ez dakitt, erre kara fango zan, uste dot.
- Eta inddarra be betik euki dozue?
- Bai.
- Radixua eta akordaitten zata noiz ekarri zeuein leheningo aldiz?
- Bai, radixua be guk oso azkar euki giñuan, "casi las primeras". Julian zan

mortala hortan, mortala, eta harek ekarri zeban radixua. Baiña hemen iñok ez zeukan artian, eta guk bai.

- Akordaitten zara zenbat urte zeukatzun radixua etorri zanian?
- Ez, ez daukat zenbait urte neukan zerik, neska gaztia. Zenbat euko nittuan ba, hamaika? Hamar-hamaika? Halakoxen bat.
- Badakotzu zerbait goguan ze entzuten zeuein radixuan? Musikia-edo...
- Ez. Musikia bai.
- Nundik, zer zan, Segura, Loiola edo Radio Paris edo Radio Madrid-edo zer zan?
- Loiola, jeneralmente Radio Loiola ipintzen giñuan guk.
- Baiña orduen beuen Radio Loiola?
- Bai, egongo zan.

15. Neskametzako lan gogorrak

- **Erref:** ANT-072/019
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Errementerikoa, Txarronenekoa, Txibistokoa eta Antzuolako beste kale-etxe batzuen izen zaharrak oraindik ere gordetzen dira. 11 urterekin Bergaran neskame egon zenean, goizean goiz jaikita lanean hasi eta gauean beste guztiak oheratu ondoren berak sukaldeko zorua garbitu behar izaten zuen harearekin eta lixibarekin. Jatorduak ere berak prestatzen zituen.

16. Gerra denboran, anaia kartzelan

- **Erref:** ANT-072/023
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:55:27. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Gerra denboran, Bernardinaren anaia Bilbon atxilotu eta Iruñeko kartzelara eraman zuten. Bernardina hamabostean behin joaten zen anaiari arropa garbiak eta jakiak eramatera; eta oinez joaten zen Deskargatik Zumarragara trena hartzeko. Iruñetik bueltan, Zumarragan "Tren Txikito" hartuta itzultzen zen etxera; arropak aldatu eta lanera joaten zen.</p>

Transkripzioa

- Gerra denboran gosia.
- Eta hemen tirorik eta hola...
- Tiruak bai.
- Hamen´e...
- (Alabia): honek anaiak eta euki zittuan kartzelan, eta juten zan...

- Ni joten nitzan hamabostian-hamabostian anaia ikustera. Anaia neukan Panplonan kartzelan, eta joten nitzan hamabostian, beste bat eta ni. Juten giñan bat aste batian haura, eta bestian joten nitzan ni. Erueten gotsan erropa garbixa, zikiña ekartzen giñuan etxera eta jana be lagatzen zoskuen, ya gerora ya denporiakin eta lagatzen zoskuen.

- Hori gerria akabo eta gero.

- Gerrako denporan.

- A, gerrako denporan?

- Gerrako denporan, bai. Juten nitzan ni, eta goizian...

- Nun harrapo euein ba?

- Nun harrapo zinddun hura? Ba hementxe nunbaitten gertuan, Bilbon edo harrapo zebein haura. Eruen zebein Panplonara, baiña zerera ez e, penalera ez e? Panplonan zera dago, penala, bestera, "Prisión Provincial". Eta ni joten nitzan horrekin, hamabostian-hamabostian; eta joten giñan orduan, ez zeuen autobusik-eta, oiñez Zumarragara trena hartzera joten nitzan. Eta laguntzen zostan aittak.

- Zumarragaraiño.

- Ez, bide erdi, hor Deskargako bidian hildakuak egon ziren, hildako batzuk.

- Frentia egon zan ezta, hor?

- Bai, hildako batzuk enterrau zittuen han eta ni billurtu itten nitzan han pasatzen, zeaittik oiñez jun bihar zan-ta. Eta aittak laguntzen zostan haura pasau arte, eta haura pasatzen zanian joten nitzan bakarrik, Zumarragara oiñez, trena hartzera. Goizian.

- Ibillialdixua, ezta?

- Bai, trena hartu eta Panplonara. Eta Panplonan pasatzen giñuan atsaldia edo eguna, eta berandu, orduan trenak eta atrasuak eta zelako atrasuak trenak eta bueno! Horko soldaua eta horko, horko, horko...bueno! Eta etortzen giñan auskalo ze ordutan, batzutan hamaiketan igual aillegatzen nitzan, eta tia neukan nik kriada Zumarragan, harek urteten zostan bidera, estaziñora, eta gero berakin lo egin eta goizian Tren Txikito trena hartu eta etorri eta aldatu eta lanera fabrikara.

- Zer da Tren Txikito?

- Tren Txikito esaten gontsan.

- (Alabia): hemetik Zumarragatik Antzuolara zegoan tren hori.

- Trena zeguan ba hor.

- Eta fan zeatik itten ziñan ba oiñez?

- Oiñez. Ba ez zeuelako ordu haretan trenik. Goizian goiz jun bihar zalako rapidua hartzera Zumarragara. Bueno, zelako biajiak, bueno...

17. Bernardina ia-ia preso

- **Erref:** ANT-072/024
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin anaia agurtzen larregi luzatu eta kartzelako atea itxi zioten bera barruan zela. Atea berriz irekitzean, denek barre egin zioten. Anaia lehenengo Bermeon egon zen preso; denera lau urte inguru egin zituen kartzelan. Epaitu zutenean heriotza-zigorra jarri zioten arren, gero zigor hori kendu egin zioten. Kartzelan, bisita orduaren aurretik, eramaten zuen den-dena miatzen zioten.

Transkripzioa

- Eta han ze rekuerto dakotzu kartzelakuak? Nola, zuzenien ikusten zebe anaia-edo?
- Ez, ez, rejia han eta rejia hemen, pasillua, eta hantxe.
- Ikutu, ikuketarik eta ez zeuken.
- Ez, ez, ez.
- Eta zenbat denpora izten otsuein?
- Ba miñutuak izaten ziren e? Behin preso geratu nitzan. Azkenian bertako langillak be ezagutu itten gindduzten, eta gu be gaztiak, eta behin ba hantxe ezin despedidu anaiakin, atia itxi zosten. Nehikua barre in zebe gero, ni estutu in nitzan eta diadarka hasi nitzan, barruan geratu nitzan neu be eta. Eta zabaldu zosten eta barriak galantak in zittuen gero. Ordurako zan jolas ittia, jolasian, gaztiak giñan ta.
- Baiña zure anaia ez zan gustora egongo e?
- Nere anaiak barre itten zebe harek be.
- Orduan geizki trataitten euein edo preso normal bat izan zan? Esan gura dot jo eta holakorik...
- Ez, ez zan kejatzen, orduan ez.
- (Alabia): baiña harek makilkada haundixak hartuta dauzka, ez?
- Bai.
- (Alabia): baiña nun?
- Hor nunbaitten, ez dakit nun. Bixkai aldian be egon zan hura eta.
- Leheningo preso egon zan Bizkaixan?
- Bai, nunbait egon zan haura, hor Lekeitio aldian edo, neu izanda nago baiña, Bermeon!
- Leheningo Bermeon? Eta handik bialdu euein gero Iruñara?
- Bai.
- Zenbat denpora in eben kartzelan?
- Lau urte, lau bat urte.
- Gerria akabo eta ondiok puxka batera, ezta?
- Bai, lau bat urte in zittuan, bai.
- (Alabia): eta zer zeukan, ze pena zeukan? "Pena de..."
- "Pena de muertia" zeukan, eta haura kendu zotsen eta gero ba hainbeste urte. Neu izan nitzan, juiziuau be neu izan nitzan.
- A, bai e? "Juicio sumarísimo"?
- Juiziuau, hantxe egon giñan. Han ekarri zittuen lotuta.
- Juiziuau nun izan zan?
- Bertan, Panplonan.
- Panplonan? Eta lau urte horreik in eta gero ya etxera etorri zan edo?
- Bai, etxera.
- Ez euein euki lanien, karretera gintzan eta holakotan?
- Ez, ez, etxera. Handik urten eta etxera etorri zan. Handik libre zan. Eta gero ba lanian hasi zan, "ya está, vida normal" gero.
- (Alabia): eta zeozter erueten jatzunian eta ezer harutz ez otsuen zabaltzen-edo?
- Bai, bai, bai, zabaltzen zebe dana, dana zabaltzen zebe! Akordatzen naiz Gabon batzutan, amari okurriu jakon oillua egosi eta ipintzia. Ba holaxe zabaldu zoskuen dana.

- Oillua bera be? Esku zikiñakin.
- Bai, txikittu dana, barruan ete zeguan ezer, dana zabaldu zebe.
- Baiña jan eben azkenien oilluori-edo?
- Jango zebe bai oilluori, pozik!
- Orduan zu lau urtian egon ziñan hamabostian behin...?
- Bai, hamabostian juaten giñan. Bat aste baten haura juten zan bestiana, eta bestian ni juten nitzan. Erueten giñuzten erropa garbixak, ekartzen gendun zikiñak. Eta juten gintzenien beti erueten giñuan paketia, horixe, nahiz eta geu jan barik geratu. Hari eruateko geu jan barik. Entenditzen dozu?
- Bai, bai.
- Ba halaxe.

18. Gerratik ihesik

- **Erref:** ANT-073/002
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:03:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra etorri zenean soldaduak etxeko sukalderaino sartzen ziren. Bernardina beste bi neskazaharrekin errekan gorde zen, haietako batek bere diru guztia aldean zuela. Ordu pare batez egon ziren kuartela leporaino uretan sartuta.

19. Gordelekutik kartzelara

- **Erref:** ANT-073/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:59

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Eskailerape eta ganbaratan gorde ziren gurasoak eta anaiak. Horietako bat, ganbaratik irten zenean, atxilotu eta Bergarako kartzelara eraman zuten. Laster itzuli zen etxera.

20. Nazionalek Elgeta ezin hartu

- **Erref:** ANT-073/004
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:08:50

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bernardinaren anaiak gerrara joan ziren. Anaiairik zaharrena kartzelaratu egin zuten. Nazionalak, Elgeta hartu ezinda, hilabete batzuetan egon ziren Antzuolan. Bernardina etxean egon zen denbora horretan, tiroketak entzuten, baina ez zen kalterik izan herrian. Anaia, Bixente lagunarekin, Frantziara ihesean harrapatu eta Ondarretako kartzelan sartu zuten.

21. Ama soldaduentzako arropak josten

- **Erref:** ANT-073/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:57

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Nazionalak Antzuolan zeudela, Bernardinaren ama Nafarroaraino joaten zen jakiak ekartzera. Soldaduen arropak josten egiten zuen lan amak, gau eta egun. Aita ez zen gerrara joan.

22. Anaia oso jipoitua kartzelan

- **Erref:** ANT-073/006
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:14:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Julian anaia frontean ibili zen, Bizkaian. Kartzelan hartutako jipoeik hondatu egin zuten Julian. Julian epaitu zutenean, azkenengo hitzak eskatu zizkiotenean, "bere lagunik handienak eraman zuela kartzelara" esan zuen. Kartzelan pairatutakoengatik gazte hil zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com